Alondegia berrasmatzeko partaidetza-prozesua

Lesakako arazo eta beharren inguruko gogoeta kolektiboa

Herritarrekin lan-saio irekia

Eguna: 2022/04/02
Ordua: 10:00-13:15
Lekua: Lesakako liburutegia
Partaide-kopurua (guztira): 27 lagun. 15 emakume (% 56) eta 12 gizon (% 44)

Gai zerrenda:

1. **Sarrera**
2. **Lesakako arazoak eta beharrak: ezagutu, aberastu eta gogoeta egin**

Atsedena

3. **Alondegiaren etorkizuneko erabilerak: lehentasunak zehaztu**
4. **Lan-saioa baloratu**

Akta:

1. Sarrera

a) Harrera eta espektatibak

Iristen joan ahala erregistro-orriak bete ditugu eta, datuen babeserako legeak hala eskatuta, partaideen datuak eta irudiak prozesuari lotuta erabiltzeko baimen-orriak bete ditugu. Bakoitzak bere izena jarri du paparrean pegatina batean.

Horrekin batera, **espektatiben murala** osatu dugu: prozesutik edo gaurko lan-saiotik zer espero dugun, zerk bultzatu gaituen parte hartzera edo zeri ematen diogun garrantzia.

ESPEKTATIBEN MURALA		
Etorri naiz oso interesgarria iruditzen zaidalako. Oso inportantea da gure herriko ekintzetan parte hartzea.	*Gure beharrak ezagutzera emateko beharrezkoa da parte hartzea.*	*Herriko agente guztien ideiak/proposamenak/beharrak aditzera eta partekatzera. Eta beste herrietako adibideak ezagutzera, inspirazio modura.*
Espektazioa	*Oportunidad. Ideas. Proyecto futuro. Conocer el pueblo.*	*Bertze taldeek egindako hausnarketak entzutera, batik bat.*
Herriko aferetan partaide izan nahi dut herritarra naizen heinean. Denen artean lehentasunak, beharrak, zubiak… inguruan adostasunak lortzea gustatuko litzaidake.	*Beharrezkoa iruditzen zait herritarrok ditugun beharrak kontuan hartzea. Horregatik da garrantzitsua parte hartzea.*	*Herriko taldeek hausnartutakoa aditu; ditugun baliabideak jakin; eta eraikin bat aberastu.*
Beharrezkoa dela iruditzen zait gure beharrak aseko dituen eremu bat sortzea. Horregatik denon parte hartzea beharrezkoa da.	*Herriko bertze taldeekin batera parte hartu nahi dut, herriko parte naizelako. Orain dugun Udalari laguntzeagatik animatu naiz. Espero dut denak elkarrekin lan egitea.*	*Denen proposamenak entzuteko. Parte-hartzaile bezala eraikinak ematen dituen aukerak ikustera. Polita da herriko talde-aniztasuna ikustea.*
Beti Gazteko kidea izanik, garrantzitsua iruditzen zait momentu honetan gure egoitzarekin gertatzen dena jakitea. Horregatik etorri naiz.	*Aditzera heldu naiz. Aurreikuspen handirik gabe. Betidanik garrantzitsua iruditu zait herriko ondareei funtzio bat/erabilera bat ematea eta bide hori lantzea inportantea da.*	*Euskara mankomunitatean euskalgintzak behar dituen espazio eta azpiegituren gainean gogoeta egiten ari gara eta Alondegiari buruzko saioetara gonbidatu gaituzte. Gogo onez heldu gara gure ikuspegia partekatu eta ekarpenak egitera.*
Alondegia topaketa-gune bat izatea gustatuko litzaidake. Adinduekin lan egiten dudanez, elkarte ezberdinak bertan "gurutzatzeak/topatzeak" elkarren arteko sinergia eta aliantzak sor ditzake.	*Nire asmoak: Behar dutenen alde lan egiten dugunontzat leku bat izatea; baita ere besteen asmoak ikusi eta entzutea.*	

b) Kokapena

Ladis Satrustegi Alzugaray Lesakako alkateak ongietorria eman die bertaratutako guztiei eta **prozesu hau abiatzearekin zergatiak** azaldu ditu.

ABIAPUNTUA

- **Alondegia potentzial handia duen eraikina** da. Aukera handiak eskaintzen ditu udalerriko azpiegitura-beharrei eta Lesakak herri gisa dituen erronkei erantzuteko, bere tamainagatik eta bere kokapenagatik.
- Hori dela eta, Udala **herriko eragile eta herritarrekin ariketa kolektibo bat** egiten ari da, denon artean herriko arazo eta beharren inguruan hausnartu eta Alondegiaren etorkizuneko erabilerak adosteko.
- Alondegiaren beheko solairuko jarduera (Jubilatuen elkartearen egoitza eta taberna) oso egonkortuta dago eta, beraz, ez da zalantzan jarriko. Alondegia berrasmatzeko prozesuan **lehenengo, bigarren eta hirugarren (ganbara) solairuen inguruko erabilerak landuko ditugu.**

Partaidetza-prozesua bideratzeko **Elhuyarren laguntza teknikoa** kontratatu du Udalak eta Elhuyarko teknikariak aurkeztu ditu: Beatriz Arrizabalaga Baglietto eta Lur Etxeberria Iradi.

Jarraian, Elhuyarreko Lurrek **prozesuaren helburuak eta urrats nagusiak** azaldu ditu eta **gaurko lan-saioaren egitaraua** aurkeztu du.

PROZESUAREN HELBURU NAGUSIA:

Alondegiaren etorkizuneko erabilera(k) herritarrekin batera landu eta zehaztea.

ZEHARKAKO HELBURUAK:

- **Udalerriko arazoak eta beharrak** identifikatzea eta horien inguruko **gogoeta kolektiboa** egitea.
- **Eragile eta herritarrek norberaren beharrak azaleratu, gainerakoen beharrak ezagutu eta, horiekiko ardura kolektiboa hartzea**.
- **Komunitatea sendotzea:** Eragile eta herritarrek elkarrekin lan egin eta harremanak sendotzea.
- **Udalaren eta herritarren arteko zubiak** eraikitzen jarraitzea, gauzak elkarrekin landu eta erabakitzeko kulturan sakonduz.

Prozesuak **lau fase nagusi** ditu eta hirugarren fasean sartu berri gara.



Prozesua antolatu

Entzute-fasea



Gogoeta kolektiboa egin eta erabakitzeko fasea

Prozesua baloratu eta, sozializatu

Prozesua antolatzeko fasean, prozesua antolatu eta koordinatzeko **Talde Eragile bat sortu** dugu. Bertan parte hartzen dute Udal Gobernuko 3 kideek eta Elhuyarreko teknikariek. Fase horretan, Udalbatza osoari prozesua aurkeztu eta bertan parte hartzeko gonbita egin genien eta, era berean, gaur egun Alondegia erabiltzen duten eragileei prozesuaren berri eman genien.

Entzute-fasearen helburua **Lesakako arazo eta beharrak identifikatzea** izan da. 8 talde-elkarrizketa egin ditugu eta 68 lagunek parte hartu dute horietan (emakumeak % 57 eta gizonak % 43; eta helduak 52 eta haurrak 16).



Entzute-fasearen ondoren, **gogoeta kolektiboa egin eta erabakitzeko fasea abiatu dugu**. Horretarako urrats hauek ematea aurreikusi dugu:

1. **Herritarrekin lan-saio irekia (gaurkoa):**

- Entzute-fasean identifikatutako arazoak eta beharrak ezagutu, aberastu eta, denon artean, herri gisa ditugun arazo eta beharren inguruko gogoeta egin.
- Alondegiaren etorkizuneko erabilerek zer behar eta aukerei erantzun behar dieten landu. Lehentasunak zehaztu.



Kokapenarekin bukatzeko, **prozesuaren printzipioak edo joko-arauak** azaldu ditugu.



c) Girotzeko ariketa

Saioa girotzeko eta talde-lana sustatzeko dinamika bat egin dugu. Horretarako, 5-6 laguneko taldetan jarri gara eta, talde bakoitzak, espagetiak eta zeloa soilik erabilita ahalik eta eraikin altuena eraiki behar izan du (bukaeran plastilinazko bolatxo bat puntan jarri eta egiturak zutik mantendu behar zuen). 10 minutu izan dituzte ariketa hori egiteko.

Ariketa amaitzean guztien eraikinak ikusi eta talde-lanean zer moduz moldatu garen partekatu dugu, talde-lanaren eta eraikuntza kolektiboaren garrantzia nabarmenduz. Eraikuntza kolektiboko ariketa labur bat egin dugu, azken finean, eta, prozesu hau ere horretan oinarritzen da.



2. Lesakako arazoak eta beharrak: ezagutu, aberastu eta gogoeta egin

Entzute-fasean identifikatutako arazo eta beharrak ezagutzeko, arazo eta beharren laburpena itsatsi dugu gelako paretetan, eta, **bakarka joan gara emaitza irakurtzen**. Irakurri bitartean, apunteak hartzeko orriak banatu dizkiegu parte-hartzaileei, beraien ustez udalerriko arazo nagusiak direnak jasotzen joan zitezen (bai arazo hori askotan aipatzen delako, bai jende askori eragiten diolako, bai estrategikoa/garrantzitsua delako herriaren etorkizunarentzat edo, bai kolektibo jakin baten egoera oso prekarioa delako). *Ikus entzute-faseko arazo eta beharren laburpena.*

Ondoren, **talde txikitan** elkartu eta gai hauek landu dituzte:

- **Arazo eta beharrak aberastu:** Badago entzute-fasean identifikatu ez dugun arazo edo behar esanguratsurik?
- **Zein dira, zuen ustez, udalerriko arazo eta behar nagusiak?** (1) Gehien errepikatzen direlako edo jende askori eragiten dietelako, (2) herriaren etorkizunerako estrategikoak/garrantzitsuak direlako edo (3) kolektiboaren zaurgarritasuna/prekarietatea oso handia delako.

Behin taldeko hausnarketa eginda, atseden bat egin eta denok elkartu gara eta **plenarian. taldetan landutakoa partekatzeko**.

Plenarian partekatutako emaitza:

Arazo eta beharrak aberastu: Badago entzute-fasean identifikatu ez dugun arazo edo behar esanguratsurik?

- **Etxebizitza:** gazteak, adinekoak, epe jakin bateko larrialdi-egoerak (etxea galdu, tratu txarrak…)
- **Hizkuntza-garatzeko arazoak/zailtasunak** dituztenentzako euskara ardatz hartzen duten zerbitzuak eta bitartekoak
- **Pobrezia**
- **Osasungintza:** prebentzioa eta bitartekoak.
- **Haurren eta etorkinen beharrak** ez dira jasotzen. Haurren kasuan, alderdi ludikoan jarri da arreta.
- **Harrera herria**
- **Dantza-taldea:** espazioa bitegirako, bulegoa…

Lantaldetan identifikatutako **herriko arazo eta behar nagusiak** partekatu ditugu plenarian eta antzeko arazo eta beharrak multzokatzen joan gara. Era berean, arazoak eta beharrak hiru irizpideren arabera sailkatu ditugu: (1) Gehien errepikatzen direnak edo jende askori eragiten dietenak, (2) herriaren etorkizunerako estrategikoak/garrantzitsuak direnak eta (3) kolektibo jakin baten zaurgarritasun/prekarietate-egoerari lotutakoak.



Paper handian jasotakoa beheko taula honetara ekarri dugu.

Zein dira, zuen ustez, udalerriko arazo eta behar nagusiak?	
Gehien errepikatzen diren edo **jende askori eragiten** dietenak	➢ **ETXEBIZITZA** • Etxebizitzaren prezio altuak eta eskaintza urria. • Etxebizitza alokatzeko arazoa. • Emergentzia-egoerei erantzuteko etxebizitzen beharra. ➢ **BIZI-EREDUAK** (bestelako ereduak eraikitzeko aukera gutxi): Kontsumoari nahiz lan-motei dagokienez ➢ **Harriondoan dena ZENTRALIZATUTA** eta plaza eta beste lekuak hilda ➢ **KIROL-AUKERA** eskasa. Kirol-eskaintza futbolean zentralizatuta eta **KULTURGINTZAREN BEHERAKADA**
Gehien errepikatzen diren/jende askori eragiten dieten eta **herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsuak direnak	➢ **HERRIGINTZA GARATZEKO ESPAZIO PARTEKATU BATEN BEHARRA: Udalerriko eragile, elkarte, sektore eta mugimenduen etxea, bakoitzari behar duenerako aterpea emango diona eta elkarrizketan jarriko dituena. Era berean, gaur egungo erronken inguruan hausnartzeko leku bat.** • Eragile, sektore, mugimendu ezberdinen arteko elkar ezagutza, koordinazioa, harremana eta elkarlana bultzatzeko leku batean beharra. • Herriko eragileen arteko ezagutza eta harreman falta. • Herriko taldeak elkartu eta antolatzeko beharra. • Jendarte-etxe baten beharra: erabilera anitzetarako; elkar ezagutzeko. Espazio bat lesakarrak elkartu eta eztabaidatzeko. • Herrigintza garatzeko espazio bat. • Informaziorako eta eztabaidarako gunea munduak orokorrean bizi dituen erronken inguruan. • Azpiegitura egokien falta (edo ez dute lekurik, edo daukatena ez da egokia), biltegi falta eta Harriondoa gainezka. • Harriondoa beteta dago. Erabilera anitzeko espazio baten beharra. • Espazio partekatu eta multifuntzional baten beharra
Herriaren etorkizunerako estrategikoak/garrantzitsuak direnak	➢ **HERRIAN ENPLEGU BERRIAK ETA TREBAKUNTZA, TOKIKO GARAPENARI eta EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEARI LOTUTA** • Tokiko garapena • Ekintzailetza falta: enplegua, trebakuntza, erreleboa… • Enplegua, herria bizirik mantentzea, garapen jasangarria • Lanerako aukera berriak: berriztagarriak, ofimatika, teknologia berriak, ekologia • Lesakan enplegu-mota berriak eta eredu alternatibo bat bultzatuko dutenak sortzea. Horretarako hezkuntza/trebakuntza eta bitartekoak.

Zein dira, zuen ustez, udalerriko arazo eta behar nagusiak?	
	• Herrian lan egiteko aukera falta ➢ **GARAPEN JASANGARRIA ETA INGURUMENAREKIN DUGUN HARREMANA** • Energia burujabetza • Inguruarekiko/naturarekiko kontzientziazioa: lehen sektorea, elikadura, heziketa eta horren alde ekitea. • Ekoizleei laguntza (salmentan, etab.) • Kilometro 0 kontsumoa bultzatu ➢ **HIRUGARREN SEKTOREA** bultzatu • Komertzioak, bertako produktuen kontsumoa, etab. bultzatu • Ostatu eta komertzioei gazteek jarraipena emateko arazoak ➢ **EUSKALGINTZA ETA EUSKARA** • Euskalgintzaren ikusgarritasuna eta eragina handitzea. • Euskararen kalitatea galtzen ari da. • Euskara inklusiorako tresna gisa.
Kolektibo jakin baten zaurgarritasun/prekarietate-egoerarekin lotutakoak	➢ **ADINEKOEN ZAINTZA BERMATU eta beren HARREMAN-SAREA INDARTU** ○ Adinekoak ondo zaindu eta leku batean bilduta haien arteko harremana sustatu beharra. ○ Adineko jendearen zaintza bermatzea, autonomia errespetatuz (pisu tutelatuak). ○ Adinekoen aktibazioa, zaintza balioetsi eta belaunaldi arteko jarduerak ○ Adinekoen bakardadea (belaunaldien arteko harremanak erronka). ➢ **NERABEEN AISIA:** 10-16 urte bitarteko gazteek ez dute lekurik elkartzeko. Ez dago eskaintzarik orokorrean adin-tarte horretarako. Beraiek kudeatutako espazioa behar luke izan? ➢ **KONTSUMORAKO AUKERAK** dibertsifikatu: erostera ez kanpora joateko eta internet bidez ez erosteko. ➢ **DISCAPACIDAD y DEPENDENCIA**: infancia y adulto. ➢ **INKLUSIOA/BABES SOZIALA**: euskara eta integrazioa
Kolektibo jakin baten zaurgarritasun/prekarietate-egoerarekin lotutakoak eta **herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsuak direnak	➢ **GARRAIO PUBLIKO ESKASA** • Mugikortasun-arazoak: garraio publiko eskasa • Garraio publikoa • Garraio publikoa falta. Kanpoaldean aparkalekuak behar. • Kotxeak gehiegi erabiltzen ditugu. Trafiko gehiegi. • Herrian aparkatzeko arazoak

3. Alondegiaren etorkizuneko erabilerak: lehentasunak zehaztu

Lesakako arazo eta behar nagusiak identifikatu ondoren, **Alondegiak horietako zein arazo eta beharrei erantzun beharko liekeen** landu dugu.

Horretarako, lehenik eta behin, elkarren artean iritziak eta ideiak partekatzeko dinamika bat egin dugu. Bosnaka elkartu dira eta 8 minutu izan dituzte taldekide guztien ikuspegiak eta iritziak ezagutzeko eta eztabaidatzeko. Jarraian, beste bost lagun ezberdinekin elkartu dira beste 8 minutuz, ikuspegi ezberdinak ezagutzeko.

Ondoren, Alondegiaren etorkizuneko erabilerei begira bakoitzak zein lehentasun ezarriko lituzkeen pentsatu eta, gometxen bidez, Alondegiak zein arazo eta beharri erantzun beharko liekeen zehaztu du, gehienez bi arazo edo behar hautatuz. Bi arazo edo behar nagusi lehenetsi dituzte partaideek nabarmen:

Lehentasuna	Alondegiaren etorkizuneko erabilerak zer arazo eta beharrei erantzuteko baliatu nahi ditugu?	Irizpidea
Altua (15 puntu)	➢ **Herrigintza garatzeko espazio partekatu baten beharra:** Udalerriko eragile, elkarte, sektore eta mugimenduen etxea, bakoitzari behar duenerako aterpea emango diona eta elkarrizketan jarriko dituena. Era berean, gaur egungo erronken inguruan hausnartzeko leku bat.	**Gehien errepikatzen** diren/jende askori eragiten dieten eta **herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsu ak direnak
Altua (15 puntu)	➢ **Herrian enplegu berriak eta trebakuntza,** tokiko garapenari eta ekonomia sozial eraldatzaileari lotuta	**Herriaren etorkizunerako estrategikoak**/garrantzitsu ak direnak
Baxua (5 puntu)	➢ **Adinekoen zaintza** bermatu eta beren **harreman-sarea** indartu	
Baxua (3 puntu) baina enplegu berrien sorreraren erronkarekin lotuta egon liteke.	➢ **Hirugarren sektorea** bultzatu	
Baxua (2 puntu)	➢ **Euskalgintza eta euskara**	
Baxua (puntu 1)	➢ **Inklusioa/babes soziala**: euskara eta integrazioa	
Baxua (0 puntu) baina enplegu berrien sorreraren erronkarekin lotuta egon liteke.	➢ **Garapen jasangarria eta ingurumenarekin dugun harremana**	

Baxua (0 puntu) Baina lehentasunezko bi alderdien bidez erronka hauei ere erantzuteko aukera egon liteke	➢ **Bizi-ereduak** (bestelako ereduak eraikitzeko aukera gutxi): kontsumo- eta lan-ikuspegitik ➢ **Harriondoan dena zentralizatuta** ➢ **Kontsumorako aukerak** dibertsifikatu	
Baxua (0 puntu)	➢ **Etxebizitza** ➢ **Kirol-aukera** eskasa eta **kulturgintzaren beherakada** ➢ **Nerabeen aisia** ➢ **Discapacidad y dependencia** ➢ **Garraio publiko eskasa**	

4. Lan-saioa baloratu

Saioa hitz batekin baloratzeko eskatu diegu partaideei eta hitz hauek aipatu dituzte:



Saioa baloratzeko, **balorazio-fitxak** ere bete dituzte bakarka. Jarraian jaso ditugu **emaitzak**.

- Denera **25 pertsonen balorazioak** jaso ditugu: 13 emakume, 10 gizon eta sexua adierazi ez duten 2 pertsona.

- **Gehienek puntuazio maximoa eman dute item guztiak baloratzerakoan**; alde handiena prozesuan jarraitzeko motibazioari dagokion itemean egon da, non pertsona batzuek ez duten motibazio askorik erakutsi. Dena den, gehienek bai; izan ere, bataz beste 4,46ko puntuazioa eskuratu du item horrek (1-5 eskalan). Emakume eta gizonen asebetetzean ez da alde nabarmenik egon.

	1	2	3	4	5	Batazbeste
Saioan zehar **nire iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera** izan dut.				6	19	4,76
Saioan parte hartu duten **gainerako pertsonei entzun eta beren ikuspegia ezagutzeko aukera** izan dut.				8	17	4,68
Lanerako eta iritziak partekatzeko **giroa egokia** izan da.				6	19	4,76
Saioaren ondoren, zenbatekoa da **prozesuan jarraitzeko nire motibazioa** edo gogoa?		1	2	6	15	4,46

Zer nabarmenduko zenuke bereziki?			
Bertzeen beharrak, kezkak, iritziak… ezagutzeko aukera izan dudala.	*Argitasuna eta askatasuna orokorra.*	*Aniztasuna.*	*Primeran egiten duzuela lan, zorionak!*
Saio aberasgarria izan da, bertzeen ideiak aditzeko aukera izan baita.	*Oportunidad.*	*Parte hartze altua.*	*Dinamikak egitea ideia ona iruditu zait.*
Egokia izan da herriaren beharrak eta herriaren argazki erreal bat ikusteko beste pertsonen ikuspuntutik.	*Zaila egiten zitzaidan horrelako "erabaki" potolo baten batean parte hartzea, baina gustura sentitu naiz.*	*Parte-hartze aukera handia.*	*Dinamiken egokitasuna.*
Herri-ikuspegia vs. interes partikularraren arteko konfrontazioa momentu batzuetan.	*Jende diferentea, normalean elkarrekin egonen ez ginenak, elkarlanean, ongi, iritzi diferenteak aditzea.*	*Parte hartze zabala lortu dela.*	*Dinamikak egokiak izan dira.*
Beharren inguruan solastu eta ondokoa entzutea garrantzitsua da.	*Hagitz gustura egon naiz. Oso dinamikoa izan da.*	*Egin diren dinamikak. Parte hartzeko hagitz ideia onak.*	*Lan ederra.*

Hobetu beharreko alderdiak			
Ideia aunitz, eta ideia aunitzei erantzun nahian denetan hankamotz geratzeko arriskua.	*Nik ideiak konkretatzea faltan bota dut. Hau da, erabilera ideiak hagitz zabalak izan dira, baina ekintza konkretuetara mugatzea falta izan zait.*	*Aipatu diren batzuk (etorkinak, nerabeak,egoera ahulean daudenak…) ez zeudela bertan.*	*Agian luzeegia.*
Landu beharreko arazoan gehiago zentratu.	*Bertan daudenek bertan jarraitzeko duten interesa agertzea.*	*Zaila bada ere, saio luzeagoa eginen nuke. Uste dut "titularretan" gelditzeko aukera bakarrik izan dugula. Hurrengoan bazkaria antolatu beharko da!*	*Herrian dauden beste eraikuntzak birplanteatu akaso.*
Ez zait gogoratzen. Dena ongi iduritu zait.			

Alondegiaren etorkizuneko erabileren inguruan proposamen zehatzagoak lantzeko ideia-jasa egiteko denborarik izan ez dugunez, balorazio-fitxetan jaso ditugu partaideen ideiak.

Zehaztutako lehentasunei erantzuteko hainbat ideia (balorazio-fitxetan jasotakoak)			
Dantza taldearentzat espazio egokitua.	*Dantza taldearentzat espazio egokitua: ispilua eta barra, entseguak errazteko. Konpartituta izan daiteke.*	*Sukalde industriala*	*Taldeentzat erabilera anitzeko gelak*
Enplegua bultzatzeko gunea; formakuntzarako baliagarriak izan daitezkeen gelak (laboreen kurtsoen baldintzak betetzen dituztenak).	*Erabilera ezberdinerako/gaitasun ezberdinak trebatzeko espazioak: irrati laborategia, tailerra, informatika gela…*	*Co-working gune bat baliabide ezberdinekin. Proiektu edo enpresa ideiak hortik ateratzea. Horrela, gero enplegua sortu daiteke, gazteak herrian gelditu eta herria bizirik mantentzeko.*	*Agian lekua egonez gero egoera zaurgarrian dauden pertsonentzako apartamentu tenporal bat edo bi. Apartamentuan egonen ziren bitartean eraikinaren mantenuaz arduratuko lirateke.*
Tokiko garapena eta ekonomia sozial eta eraldatzailea. Inguruko ereduei begiratu. Esperientziak: OlatuKoop, BDS KOOP, Hernani eta Buruntzaldea.			

Bukatzeko, **hurrengo urratsak** gogoratu ditugu:



Apirila-maiatza

Herritarrek zehaztutako lehentasunei bide emateko aukera posible eta zehatzak landu (aukera bat baino gehiago, ahal dela).

Maiatza bukaera

Udalak herritarrei aukera posible eta zehatzak aurkeztu, denon artean aberastu eta Alondegiaren erabilerak adostu.